

POEMA HAUTATUA

Charles Simic
Haizea hil da

Nire ontzitzoa,
kontu izan.

Ez dago
lurrik begi bistan.

Liburua. *Not Land in Sight* (Ez dago lurrik begi bistan), 2022.

itsua izan zen beti, eta munduko izugarrikerien aurreko begirada ezkor baina umoretsu bat erakusten zuen horretarako. Aipatzen zuen bizitakoak bizitu ondoren ezinezkoa zitzaioala beste modu batera aurre egitea munduari, eta umetan bonbardatuak izan bitartean txisteak kontatzen zituzten herrikeriek hartzen zituen gogoa hautu horren inguruan aritzeko orduan. Hala kontatu zuen, esaterako, *El Cultural* aldizkarian, 2020an: «82 urte bizi izan den eta horrenbesteko indarkeriaren, injustiziaren eta miseriarren lekuko izan den norbait, ni bezala, ziurrenik ezingo da sekula pertsona baikorra izan. Behin, nire aita zenarekin honetaz hizketan, ondorioztatu genuen ezkor alaitzat definitu behar genuela geure burua, denaren gainetik, azken buruan, asko maite baikeen barre egitea; txiste on batez gozatzea».

Ekialdeko Europaren herentzia gaietan soilik ez, idazkeran ere bistaratu zuen. Vasko Popa poeta serbiarra itzuli zuen, besteak beste, ingelesera, eta, hark bezala, herri tradizioik datozen literatur formetara hurbildu zen aldi batzuetan. Bereizgarri horrek eta hasieratik agertutako aparteko distira xumeak ekarri zizkion AEBetako sari prestigiosuenetako asko; besteak beste, Wallace Stevens saria (2007) eta Pulitzer entzutetsua (1990), *The World Doesn't End* (Mundua ez da amaitzen) lanarengatik.

«Etengabe» idatzi zuen urteetan, ahal zela ohe gainean. Hiru-lau urterik behin, pilatutako testuei begiratu, eta liburuak hortik eraikitzea gustatzen zitzaion. Bizitzako azken urteetan idatzitako aleekin kaleratu zuen bada, iaz, *Not Land in Sight* (Ez dago lurrik begi bistan) hondarrekoa, zeinaren azken-azken poema den *Haizea hil da* –ikus goian, poema hautatua–.


Txantxangorri buruarekin

Irati Majuelo

Ezaguna da Juan Kruz Igerabideren ibilbide literario oparoa, batez ere haur eta gazte literaturan nabarmendu dena. Hala ere, esan daiteke genero literario ia guztietan esperimentatu duela, nahiz eta, agian, saiakera ez duen poesia, narratiba, edo antzerki-testua bezainbeste landu. Saiakera batekin dator oraingoan, Alberdania etxean argitaratu baitu *Ura saltoka*, bizitzari atzera begira maiz, memoriaren eta gogoaren uretan murgiltzeko proposamena eginez irakurleari.

Naturarekin harreman estuak eraikitzen dituen lana da Igerabiderena, hori du helburu nagusi, izatez, *Natura eta kultura jolasean* azpi-izenburuak iradokitzen duen gisan. Natura gogoetagai hartuta, beraz, harilkatzen ditu askotariko pentsamenduak, umetako orotzpen lausoak eta egungo kezka sozialak, gaztetako

anekdotak eta pentsalari, poeta zein ikerlari ugariren ideiak. Hari-mutur bat proposatzen du



‘Ura saltoka’
Idazlea: Juan Kruz Igerabide.
Argitaletxea: Alberdania.

kapitulu labur bakoitzean, eta horri tiraka osatzen du bere hausnarketa ildo, hara eta hona jauziak eginez, digresioak arau. Idazleak aipatzen duen bezala: «Txantxangorri-buruarekin pentsatzen ari naiz gauza hauek guztiak. Ohartzen naiz askoz ere xeheago eta sakonago azaldu beharrekoak direla. Niri, hala ere, txantxangorriaren jauzikako hurbilketa gustatzen».

Honenbestez, jauzi jauzi azaleratzen ditu, erabat sakondu gabe, hamaika gairi buruzko irizkiak: gizakiak teknologiari dion miresmena, krisi ekologikoa, izadiak sortzen duen lilura, ehiza, poesiaren eta naturaren arteko harremana edo gerla, besteak beste. Gaiak badatoz eta badoaz, baina ez du, hala ere, hurbiltasunik erakusten Igerabideren jarioak. Aldiz, gehiago hurbiltzen da basoan zehar egurastu ahala sortzen den hizketaldira, solas-hariak hasi, galdu eta berrartzen dituen jardunera. Hori hala, idazlea berriketa gozoan sumatzen da eta irakurlela entzule adi izatera gonbidatzen du, harekin batera hausnarketa isilean. Darabilen hizkuntza aberatsa eta malgua nabarmendu behar da saiakera honetan, bai eta aipatzen dituen erreferentzia literario, filosofiko eta zientifikoak ere, idazlearen ideiak pausatzen baitituzte testuan, lurrera ekartzen.

Liburuan zehar kritikatzan duenez, gizarte honetan «bentako arrazoia non dagoen ez zaigu axola, arrazoiarekin irteera baizik» eta, ildo horretan, hausnarketa gehienek izaera irekia dute, ez determinista, malgua. Alabaina, azkeneko kapituluetan, COVIDaren gaiari heltzen dihonean, Igerabideren gogoeta kritika gogor bilakatzen da, eta argudioak arrazoiaren jabe izateko defendatzen ditu, ez eztabaida osatzeko asmoz. Hori dela eta, nahiz eta bere burua ez kokatu jarrera batearen ez bestearen tarteko bidean, garatzen duen diskurtsoak nabarmen jartzen du zalantzan zientzia, pandemiaren erabili ziren neurriak, etab. Kontua da, hainbatetan datu ez-fidagarriak edo are gezurrezkoak haiztzen dituela, adibidez, bidaiatzeko COVID pasaportea beharrezkoa dela aipatzen duenean. Ondorioz, uste dut liburuaren amaierako pasarteek testuak hasiera batean hartutako bide xalo eta zabala nahastu edo narrastan dutela, gogoeta irekiak zirenak gotorleku bilakatzen baitira.


Zentzumenak pizten

HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Imanol Mercero

Pamiela argitaletxeak tinko jarraitzen du (kide duen Kalandrakarekin batera) duela hamarkada batzuk atzerrian plazaratu ziren albumak berreskuratzen. 1960ko eta 1970eko hamarkadetan AEBetan albumak eztanda egin zueneko harribitxiak maiz ekarri dizkigute (*Hartz txikia*, *Frederick*, *Piztiak bizi diren lekuan...*), eta haiekin album ilustratuen sortzaile zenbaiten berri: Browne, Mayer, Sendak, dePaola, Hutchins eta Silverstein, beste batzuen artean. Esku artean dugun Joslin eta Alcornen harribitxi hau bezala. Zentzumenak pizten dituen

azala du. Antigoaleko marrazketa imitatzen du, XIX. mendekoa, bolumena eta itzalak sortzeko marrazkoak barne, horia eta gorria nagusi diren ilustrazioetan, berde ugarirekin. Bestela esanda, kolore primarioak eta sekundarioak. Irakurri dudanagatik, Alcorn irudigile elegantzat daukate, geometriaren erabilera simetrikorren zale, forma jolastiak proposa-



‘Familia txikia’
Idazlea: Sessyle Joslin. Ilustratzailea: John Alcorn. Itzultzailea: Eva Linazasoro. Argitaletxea: Pamiela-Kalandraka.

zuten zituena, baina komposizio on batek behar duen oreka galdu gabe. Eta koloreen erabilera zer esan; *psikodelia* garaiko paleta bizietara asko hurbiltzen da.

Liburuak lau kontakizun eskaintzen ditu. Bakoitzak zortzi orrialde hartzen ditu. Amaieran, ingeleseuskaraz hiztegia dakar, ipuin bakoitzak berea, testuaren itzulpena egiteko behar diren hitz beroriekin (esaldi ordena eta halakoetarako azalpenetan ez da sartzen). Album ilustratuen artean aurrerago modan jarri ziren ezaugarri asko ditu; ez dezagun ahaztu 1964an kaleratu zen liburu hau albumaren estandarrak ezartzen ari zela.

Azalak arreta bereganatzeko duen gaitasunaren pareko dira lau istorioak. Kontakizun guztiak gehikuntzaren teknikan oinarritzen dira, Haur Hezkuntzako haurrekin maizenik erabiltzen den horixe, adibidez: [Oturuntza (liburuko bigarren)] «Mahaia./ Mahai gaimean ogia dago./ [...] ogia eta entsalada daude./ [...] eta haragi erre daude./ [...] eta pastelxoak daude./ [...] eta sagutxoak daude./ On Egin sagutxo anderea!». Horra kontakizuna bere gordinen. Barre eragilea da as-

moz, eta ezustekoarekin jokatzen du. Irakurleak istorioaren hurrengo pausoa aurreikusteko joera erabiltzen du arreta bereganatzeko. Zer izango da hurrengo jakia (otordu arruntaren bi plater eta postrea ditu —edaria faltan—)?, Zertara etorri da sagutxo? Eta abar.

Kontakizunek dituzten zortzi orrialdeetan (izenburuarena barne), zortzi pauso narratibo ematen dira. Kontakizunak dinamikoak dira, etengabe mugimenduan daude, azken ezustekora arte.

Orrialde guztien atzealdea zuria da; zuritasun horren erdian ilustrazioa kokatzen da, eta azpian testua. Irudiek orrialdearen parte handiena hartzen dute, eta estatikoak dira: ez dute mugimenduan pertzepzioa eragiten. Baina, ezaugarri hauetatik aparte da *Pailazoa*, hirugarren kontakizuna. Hemen testua eta irudiak bertikalean antolatzen dira, eta mugimendua egon badago.

Azken hitza erabiliko dut lan honen eta Amaia Egizada eta Sara Bikandiren *Poltzikorako poemak* lanak erkatzeko, parekotasun asko partekatzen dituztelako. Kasualitate?